

Astigarragako Udalbatzari,

Hauxe da MUGItu plataformak Astigarragako Udalbatzari helarazi nahi dion **MOZIOA**, osoko bilkuran azter dezaten eta, egoki iritziz gero, aho batez onar dezaten.

Hasteko, uste dugu egokia litzatekeela azkeneko urteetako kronologia txiki bat egitea.

2021/07/01

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Lurraldebusek Buruntzaldeko autobus zerbitzuaren emakida berria jarri zuten martxan.

2021/07/12

Erribera kulturgunean eratu zen Mugi Astigarraga, autobus zerbitzu publiko duinaren aldeko herri plataforma.

2021/07/22

Kontzentrazio jendetsua antolatu zuen plataformak. Ondoren etorri ziren Astigarragako Udalean aho batez onartutako mozioa eta hainbat bilera.

2022/02/03

Agerraldia Batzar Nagusietan, eskaerak berresteko:

- BU12 autobusaren ibilbidea (eta geltokiak) eta maiztasuna lehengoratzeko.
- BU13 linea 15 minutuko maiztasunera igarotzeko eta, bidaiari gehieneko orduetan, errefortzuak bermatzeko.
- Astigarraga Buruntzaldearekin eta Donostiarekin (ospitaleak eta unibertsitatea) lotzeko beste linea aukera batzuk aztertzeko eta epe laburrera ezartzeko.
- Herritarren iritzia jasotzeko prozesu parte-hartzaile bat egiteko eta bertan ateratako ondorioak betetzeko konpromisoa hartzeko.

Horien ostean Gipuzkoako Foru Aldundiak errefortzuak jarri zituen, baina arazoak etengabeak izan dira egun arruntetan nahiz berezietan eta banakako kexa eta erreklamazio ugari aurkeztu dituzte herritarrek.

2025/09

Berriz aktibatu zen plataforma, MUGItu Astigarraga izen berriarekin. Jende gehiago batu zen plataformara, helburu berberarekin: Astigarragan autobus zerbitzu duina lortzea.

2025/10/14

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak, plataformak egindako kontzentratzeko deialdiaren aurrean, bilera deialdi bat bidali zuen eta plataformarekin elkartu zen.

Bilera horretan betiko eskaerei eutsi zien plataformak baina konpromiso lausoak entzun ditu, gehienetan prentsako agerraldien testuinguruan edota telefono dei batzuen bidez eta ia beti plataformak protesta ekintzak iragarri ondoren.

2025/11/08

Kontzentrazio jendetsua Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza nagusiaren aurrean, ondorengo eskaera zehatzekin.

- BU12 Eta BU 13 autobusen maiztasuna handitzea
- Ospitaleekin eta unibertsitateekin lotzeko autobus linea berria

2026/03/07

Manifestazio jendetsua Astigarragan.

Hori guztia kontuan izanik, MUGitu Astigarraga plataformak adierazi nahi du:

- Hasierako eskaerei eta aldarrikapenei eusten diela.
 - BU12 autobusaren maiztasuna handitzea eta ibilbidea lehengoratzeari (herri barruko geltokiak berreskuratuta).
 - BU13 autobusaren maiztasuna handitzea
 - Beharrezko den kasuetan, egun arruntetan nahiz berezietan, zerbitzuak indartzea (errefortzuak jarriz edo autobus artikulatuak jarriz).
 - Astigarraga ospitaleekin edo unibertsitateekin lotzeko autobus zerbitzu egokia. Ordubeteko maiztasuna duen zerbitzua ez da nahikoa, are gutxiago Astigarragan 2 geltoki bakarrik izango dituen eta ospitaleen eremuan geltokia Onkologikoaren parean izango duena.
- Astigarragan askok egiten dutela bat plataformaren eskaerekin, azkeneko asteetako kontzentrazio eta manifestazioak erakusten duten moduan, eta adin, iritzi eta ideologia askotako herritarrak biltzen direla bertan, hasierako helburu bakarrarekin: autobus zerbitzu duina.
- Autobus zerbitzu duina honakoa dela: inguruko herriekin, bestelako garraiobideekin eta zerbitzuekin lotuko gaituena, eguneroko zereginetara nahiz gertakari berezietara joateko aukera bermatuko diguna, maiztasun egokia izango duena, inor geltokian utziko ez duena eta gutxieneko erosotasunez eramango gaituena.

- Ahalegin zintzoa egin duela Astigarragako Udalean ordezkariak duten alderdi guztietako zinegotziekin biltzeko eta elkarlanean aritzeko, baina erantzuna ez dela egokia izan, batzuetan hutsaren parekoa.
- Astigarragako Udalak etengabe izan dituela ateak zabalik plataformarentzat eta komunikazio etengabean aritu dela plataformarekin.
- Uneoro prest izan garela Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Departamentuarekin hitz egiteko eta biltzeko, betiere plataformaren helburua ahaztu gabe: autobus zerbitzu duina.
- Aipatutako departamentuak behin eta berriz medioetan adierazitako elkarlana ez dela benetako elkarlana izan, informazio emate hutsa baizik.
- Ikusten dituela Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak norabide egokian hartu dituen erabakiak, nahiz eta oraindik ez diren gauzatzen hasi.
- Prest dagoela zerbitzua hobetzeko xedez plataformarekin bildu nahi duen eragile edo erakunde ororekin elkarlan benetako eta zintzoan aritzeko, elkarrekiko errespetuan eta informazio truke gardenean, manipulazio eta erabilera maltzurrik gabe.

Horiek horrela, Astigarragako Udalbatzari eta gainerako erakundeei eskatzen die:

- Gogor egiteko lan Astigarragan autobus zerbitzu duina izateko.
- Elkarlan zintzoan eta errespetuzkoan jarduteko, alderdikeriak alde batera utzita eta bakoitzaren eskumen eta ardurei muzin egin gabe.
- MUGItu Astigarraga plataforma, bere jarduna eta bertako kideak errespetatzeko.
- Mozio hau onartu eta gaiarekin zerikusia duten erakundeei eta enpresa esleipendunari helarazteko.

Astigarragan, 2026ko martxoaren 18an